Orion Oria da itsasadarra; bertan biltzen dira itsasoko gazia eta ibaiko ur gozoa. Bi hauen arteko talkak bizitza gogorra ematen du; arnasa eta hatsa sortzen dira.

Ur horretan borrokarako ametsak jaiotzen dira. Bertan agertzen dira arraunlariak, arrantzaleak, sare-jostunak, arrain-saltzaileak, umeak jaiotzen dira…, eta igeri egiten da, eta bazkaltzen, ezkontzen…, eta azkenean hil.

Marisaren lan honetan uraren mota guztien isla nabarmena da. Egileak indar haundiz itsas ertzeko jendea eta bere bizimodua islatzen ditu. Bere herria, Orio, olerki argazki hauetan erakusten digu eta bertakoak beti ditu gogoan. Emakumea dela sortzailea —eta nola ez, emakumeen barrutik, soilik, *sortzen* baita bizitza— gogoan du: alaba dela, ahizpa dela, arreba dela, ama dela, irakaslea dela, guztiak urratu ditu oriotar honen bihotzak. Olerki bilduma honek, garrasiekin batera, pozak eta alaitasunak eztanda indartsuak eragiten dituzte irakurlearen begietan, belarrietan zein burmuinetan .

Itsasoaren talkez ez hondoratzeko Marisak *txalupa* diren olerkiak ur azaletik erabiltzen ditu itsasertz horretatik maisutasunez gure begietan irudikatuz, islatuz. Sarritan galdetu badiote ere zer den poesia, egileak *Poesia egiteko griña* erakusten digu:

*Barrenak askatzeko beharrak*
*bultzatu nau askotan*
*baina*
*behin eta berriz*
*behiz eta berriz*
*inorengana iristen ez den zerbait sortzea*
*benetan garratza izan da…*
*Horregatik*
*Udaberriaren usainean*
*musika egiten ahaleginduko naizela*
*aitortu diot neure buruari.*

[…]

GONBITEA

9 788412 439519

Salneurria 19,00€

dakit argitaldaria

Marisa Arruabarrena Elizalde Ezkutuan dagoena

dakit argitaldaria

# Marisa Arruabarrena Elizalde

# Ezkutuan dagoena



dakit argitaldaria


© Senpere, 2022

Marisa Arruabarrena Elizalde (Orio,1967). Euskal filologian lizentziaduna, irakaslea, idazlea, olerkaria, eta ama da.

Hau naiz ni: ama, emaztea, irakaslea, alaba, izeba, ahizpa, arreba eta noizean behin halako lamiren bat gurera etortzen denean «poeta-idazlea»

Orain arte olerkia bakarka edo taldean eman du argitara (Hatsaren poesia). Bere lehen olerki bilduma, lehen aldiz, *Maiatz* aldizkariaren eskutik agertu zen jende aurrean. Argitalpen hura agortuta, hemen dago berriro irakurleen eskuetan. Iaz *Osaba Joxeren sotoko kutxan* eleberria idatzi zuen.

Azalaren diseinua: Sabin Oregi
Azaleko irudiak: Elene Tamayo Irigoyen

dakit argitaldariak

*Ezkutuan dagoena*

Marisa Arruabarrenak 2022an kaleratutako olerki bildumaren
**aurkezpenera gonbidatzen zaitu**.

Lekua: **Donostiako Udal Liburutegi zaharrean** (Mandas dukearen aretoan).
Data: **urriaren 18an**
Ordua: **12: 00etan**

dakit
argitaldaria